

Zuzentzailearen Nazioarteko Egunean

Iñigo Roque Eguzkitza

Ikusgaitasuna da itzultzaileen eskarietako bat: badirela agertu nahi dute harro. Jo dezagun EIZIEren batzar nagusian gaudela eta, inoiz ez bezala, bazkide guztiak elkartu direla erabakizun handiak aztertzeko. Hara, hor dituzu itzultzaileak; interprete bat edo beste ere bada, entzungailuetan ezagun zaie, baina zail da zuzentzaileei antzematea... Bolaluma gorriarik ia ez da ikusten paparreko sakeletan. Auzo-herrietan ez bezala, hemen zuzentzaileek itzultzaile eta interpreteen lagunarte alegera dute bidelagun; ez, alferrik, gainera, horrek aukera ematen baitie «Zertan egiten duzu lan?» galdetzen dieten bakoitzean «Itzultzailea naiz» erantzuteko.

Hala ere, har dezagun tartetxo bat, eta pentsa dezagun zer erantzungo geniokeen jakin-minez inguratzen zaizun horri. Zuzentzaile garelara ihardetsiz gero, susmo txarrei eta harridurari buru egin behar genieke, inondik ere, ez baikara ez «hizkuntzaren poliziakoak», ez Word-eko «zuzentzaile ortografikoak», ez «diktaketak zuzentzen dituzten behialako irakasleak», ez «tinta gorriaren maitale sadikoak». Hartara, ezezka hasiko ginateke, zer ez garen azalduz; txantxa-giroan, seguruena.

Ordea, zer garen badakigulako dakigu zer ez garen. Zer gara, bada?

- a) testuen mamiaren nahiz itxuraren zaintzaile
- b) hitz doi eta egokien bilatzaile
- c) aholkulari eta gomendio-egile
- d) idazleen aingeru guardako (idazlea idazten duena da, izan koblakari, izan kazetari, izan itzultzaile...)
- e) idatzietako korapiloen askatzaile
- f) lotsen estaltzaile
- g) prebentziozko irakurle
- h) kalitate-bermatzaile
- i) izenik gabeko inurri maratx
- j) testugile eta argitaratzaileen pilula lasaigarri
- k) etc.

Berrero, ezezkoan. Ez ditugu atsegin akats-markatzaile orojakileak (Buenos Airesen hala ospatzen duten arren gaurko eguna, hirian zehar kalejiran akatsei erretratuak eginez). Ez gara pozten inoren hutsekin. Ez gara zuzentzaile, hobetzaile baizik (Larramendik gu izango gintuen gogoan, beharbada, hitza asmatzean).

Beharbada, ez dugu nazioarteko egunik beharko, Zuzentzailearen Harrotasun Eguna baino, lumak jantzita agertzeko itzultzaile eta interpreteekin ditugun bilera horietara.

Artikulu hau EIZIEren barne-buletinean argitaratu zen lehen aldiz, 2011n